



JONAS ETA HOZKAILU BELDURTIA



LIBURUAREN FITXA

Igerabide, J.K. Mikel Valverde. *Jonas eta hozkailu beldurtia*. Aizkorri arg. 1998

SARRERA MODUAN

Beldurra gizakiaren ezinbesteko bidelagun bat da; haurtzaroan asaldadura ikaragarriak sentitzen badira ere, geroan aldatuz doaz beldurraren adierazpenak. Forma berriak hartzen dituzte hauek; txikitik mamuz eta ezintasunez irudikatzen dena, larridura, izerdia eta dardara bilakatzen da hazten garen adinean.

Zirrara bat dago beldurraren oinarrian, gure zentzumenak kilikatzen dituen: egoera ezezagun batek, ezuste batek, gure buruarekiko konfiantza galdu arazi eta harrituta uzten gaituen. Pentsaerak hartzen du ondoren parte, zer ote da? bakarrik geldituko ote naiz? hilko al naiz?

Hala moduzko zalantza andana bidaltzen digu pentsaerak izutzen garenean. Arrazoitu ezin eta amets eta delirioen bidez sinbolizatzen ditu gure ezinak. Mamuak, otsoak, txirrista amaigabeak sortzen ditu gure irudimenak, eta hauei forma ematen die gure fantasiak.

Irudi sinboliko hauek ametsetan agertzen dira batik bat; baina horien aurretiko asaldadurak noiznahi azaltzen zaizkigu: kale ilun batean, leku malapartatu batean, arriskueta, eta norberak dakien guztietan.

Beldur txiki horiek lehenengo lerrora ekarri, eta haiekin jokatzeko proposatzen diegu, ikararekiko distantzia hartuz.

Jonas txikia bakar-bakarrik geratu da etxean, ama dendara jaitsi bitartean. Beldurrak irentsi du Jonas txikia, eta etxeko gauza guztiak ere beldurrez daudela iruditzen zaio



PROPOSAMENA

- Zentzumenak eta emozioak
- Ikaratzen zarenean, zer sentitzen duzu urdailean, arnasan, ahotsean...?
- Zer doinu isilak egiten ditu zure gorputzak?
- Irudikatu hots hauek: UUUUUUY!!!! IXOOOOO! AIENE! GRRRROPPPKFFFFT! ZZZZZIIIIIIZZZZZZZ, KARRASK-KARRRRRRRRASSSSKKKKKK
- Zure amets gaiztoa azaldu
- Aurreko proposamenetako bat azaldu: irudiz irudi zein irakasleei egindako diktaketaz.